

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

868

22/2009 DEKRETUA, otsailaren 3koa. Honen bitartez, prozedura arautzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen bigarren aldaketari buruzko ekainaren 13ko 3/2008 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako zuzendaria aukeratzeko sistema ezartzen da. Sistema hori berdintasun, publikitate, merezimendu eta gaitasuneko printzipioetan oinarritua dago, profesionalki hautagai egokienak izango diren eta hezkuntza-komunitatearen babes handiena lortuko dutenak aukeratzeko.

Zuzendaria ikastetxean bertan aukeratu behar dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariak eta ikastetxe horretako ordezkariak osatutako batzorde batek. Zuzendaria aukeratzean, kontuan hartuko dituzte hautagaiek egiaztatutako merezimendu akademiko eta profesionalen balioespen objektiboa eta pertsona bakoitzak aurkeztutako zuzendaritza-proiektuaren balioespena.

Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean ezarritakoaren garapen-araua ematea, gero Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko prozesuak deitzeko.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak onartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako izapideak eginda, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzunda, eta 2009ko otsailaren 3an egindako bileran Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu ondoren, hau

XEDATU DUT:

#### 1. artikulua.– Helburua.

Dekretu honen helburu da prozedurak arautzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, izendatzeko eta

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

868

DECRETO 22/2009, de 3 de febrero, sobre el procedimiento de selección del Director o Directora y el nombramiento y el cese de los otros órganos unipersonales de gobierno de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

La Ley 3/2008, de 13 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Escuela Pública Vasca, establece un sistema de selección del Director o Directora de los centros públicos docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco basado en los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad, con objeto de seleccionar a las candidatas o candidatos más idóneos profesionalmente y que obtengan el mayor apoyo de la comunidad educativa.

La selección debe ser realizada en el propio centro por una Comisión constituida por representantes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y del centro correspondiente. La selección debe tener en cuenta la valoración objetiva de los méritos académicos y profesionales acreditados por las personas aspirantes y la valoración de su Proyecto de Dirección.

Es competencia del Gobierno Vasco dictar la correspondiente norma de desarrollo de lo establecido en la Ley de la Escuela Pública Vasca, con objeto de convocar posteriormente los correspondientes procesos de selección de los Directores y Directoras de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de acuerdo con la Comisión Jurídico Asesora de Euskadi, una vez realizados los trámites previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, oído el Consejo Escolar de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de febrero de 2009,

DISPONGO:

#### Artículo 1.– Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación del procedimiento de selección, nombramiento y cese del Director o Directora y del nombramiento y cese de los otros órganos unipersonales de gobierno de los centros

kargua uzteko; era berean, pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko prozedurak arautzen dira.

## **2. artikulua.**– Aplikazio-esparrua.

Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuak eta Estatuko Erreferentziako Lanbide Heziketako Ikastegiak salbuesita, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza eskaintzen duten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publiko guztietan aplikatuko da dekretu hau, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak eta lege hori garatzen duten eta oinarritzko arau izaera duten arauak aplikatzen diren alderdi espezifikotan.

## **3. artikulua.**– Printzipio orokorrak.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe bateko zuzendaria izendatzeko agindutako irakaskuntzetako bat ematen duen karrerako irakasle funtzionarioetako bat aukeratuko da merezimendu-lehiaketara bidez. Berdintasun, publikitate, merezimendu eta gaitasuneko printzipioen arabera aukeratuko da.

2.– Merezimendu-lehiaketak bi fase izango ditu. Lehen fasean, ikastetxeko zuzendaritzara hautagaitza aurkeztu duten pertsonak alegatutako merezimenduak hartuko dira kontuan. Bigarren fasean zuzendaritza-proiektua aztertuko da eta, proiektu horretan, ikastetxeko hezkuntza-proiektua zuzentzeko hautagaiak egin duen proposamena bilduko da.

## **4. artikulua.**– Izangaien betebeharrak.

1.– Merezimendu-lehiaketan parte hartzeko honako baldintza hauek bete beharko dituzte irakasleek:

a) Gutxienez, bost urteko antzinatasuna izatea irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa.

b) Epe horretan, hautagaiak karrerako funtzionario gisa zuzenean irakasten egon behar izan du zuzendu nahi duen ikastegiak eskaintzen dituen irakaskuntzetarako batean.

c) Deialdia argitaratutako unean, gutxienez, ikasturte bateko esperientzia izan behar du zuzendu nahi duen ikastegiak eskaintako gaietakoren batean eskolak ematen Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxe publikotan.

d) Zuzendaritza-proiektu bat aurkeztu behar du. Bertan, beste hainbat artean, honako gai hauek adierazi beharko ditu: helburuak, jardunbideak eta hauen ebaluazioa, eta ikastegiko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoak zuzentzeko proposatutako pertsonen izenak. Zuzendaritza-proiektuak gehienez 15 folio izango ditu eta alde batetik eta espazio bikoitza utzita idatziko da.

docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

## **Artículo 2.**– Ámbito de aplicación.

El presente Decreto será de aplicación en todos los centros públicos dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que impartan enseñanzas no universitarias, con excepción de los Centros Integrados de Formación Profesional y de los Centros de Referencia Nacional de Formación Profesional, en aquellos aspectos específicos en los que les resulte de aplicación la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional, y las normas que la desarrollan y tienen carácter de norma básica.

## **Artículo 3.**– Principios generales.

1.– La selección para el nombramiento del Director o Directora de un centro docente no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación se efectuará mediante concurso de méritos entre el profesorado funcionario de carrera que imparta alguna de las enseñanzas encomendadas al mismo. La selección se realizará de conformidad con los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad.

2.– El concurso de méritos constará de dos fases. En la primera fase se valorarán los méritos alegados por las personas que hayan presentado su candidatura a la Dirección del centro. En la segunda fase se valorará el Proyecto de Dirección, que recogerá la propuesta directiva de la persona candidata en relación con el proyecto educativo del centro.

## **Artículo 4.**– Requisitos de las personas aspirantes.

1.– Los requisitos que deberá cumplir cualquier profesor o profesora para participar en el concurso de méritos son los siguientes:

a) Tener una antigüedad de al menos cinco años como funcionario o funcionaria de carrera en la función pública docente.

b) Haber impartido, durante un periodo de igual duración, docencia directa en alguna de las enseñanzas de las que ofrece el centro a que se opta, como funcionario o funcionaria de carrera.

c) Estar prestando servicios en un centro público de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en alguna de las enseñanzas de las del centro al que se opta, con una antigüedad en el mismo de al menos un curso completo al publicarse la convocatoria.

d) Presentar un Proyecto de Dirección que incluya, entre otros, los objetivos, las líneas de actuación y la evaluación del mismo y los nombres de las personas propuestas para desempeñar los demás órganos unipersonales de gobierno del centro. El Proyecto de Dirección constará de un máximo de 15 folios escritos por una sola cara y a doble espacio.

2.– Haur Hezkuntzako ikastetxe espezifikoetan, Lehen Hezkuntzako osatu gabeetan, zortzi unitate baino gutxiagoko Bigarren Hezkuntzakoetan, zortzi irakasle baino gutxiago dituzten helduentzako ikastetxeetan, irakaskuntza artistiko profesionalekin, kirolarekin edo hizkuntzekin lotuak daudenetan, merezimendu-lehiaketan parte hartzeko edozein irakaslek aurreko atalean adierazitako baldintzak bete beharko ditu honako aldaketa hauekin:

a) Orokorrean exijitutako bost urte barik, irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa urtebeteko antzinasuna izan behar du, gutxienez, irakaskuntza-lanetan.

b) Orokorrean exijitutako bost urte beharrean, karrerako funtzionario gisa, irakasle-lanak betetzen, gutxienez, urtebete beteta izan beharko du zuzendari izan nahi duen ikastetxeak eskaintzen dituen gaietakoren batean.

3.– Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen bigarren aldaketari buruzko ekainaren 13ko 3/2008 Legearen lehen xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, lan-kontratudun irakasleek ikastetxeko irakasle guztien ehuneko berrogeita hamarra, gutxienez, ordezkatzen duten ikastetxetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko lan-kontratudun edozein irakasle finkok aurkeztu ahal izango du bere hautagaitza, baldin eta eskatutako ikastetxean destinoa badu eta kasu bakoitzean exijitutako gainerako baldintzak betezen baditu.

Lan-kontratudun irakasleek aurkeztutako hautagaitzak kontuan hartuko dira beste hautagaitzarik aurkeztzen ez denean edo beste hautagaitzarik aukeratzen ez denean.

4.– Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu den egunean kasu bakoitzean eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu pertsona batek hautagai izateko.

#### **5. artikulua.**– Aukeraketa-batzordeak.

1.– Aukeraketa-batzordea eratuko da unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako bakoitzean, baldin eta aukeraketa-prozesua egin beharra badago eta, gutxienez, hautagai bat aurkeztu bada.

2.– Ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

– Ikastetxeari dagokion Ikuskaritzako lurraldeburuak proposatutako hezkuntza-ikuskatzaile batek. Batzordeko lehendakari jardungo du.

– Ikastetxeko klaustroko kideek euren artean aukeraturako ikastetxeko irakasleen bi ordezkarik. Irakasle helduenak batzordeko idazkari gisa jardungo du, hitz egiteko eta botoa emateko aukerarekin.

2.– En los centros específicos de Educación Infantil, en los incompletos de Educación Primaria, en los de Educación Secundaria con menos de ocho unidades, en los que impartan enseñanzas artísticas profesionales, deportivas, de idiomas o las dirigidas a personas adultas con menos de ocho profesores y profesoras, los requisitos que deberá cumplir cualquier profesor o profesora para participar en el concurso de méritos serán los establecidos en el apartado anterior con las siguientes modificaciones:

a) Deberá tener una antigüedad de al menos un año como funcionario o funcionaria de carrera en la función pública docente en funciones docentes, en lugar de los cinco años exigidos con carácter general.

b) Deberá haber impartido, al menos durante un año, docencia directa en alguna de las enseñanzas de las que ofrece el centro a que se opta, como funcionario o funcionaria de carrera, en lugar de los cinco años exigidos con carácter general.

3.– De acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera de la Ley 3/2008, de 13 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Escuela Pública Vasca, en aquellos centros en los que el personal laboral docente represente como mínimo el cincuenta por ciento del conjunto del profesorado del mismo, podrá presentar también su candidatura el personal laboral docente fijo dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, siempre y cuando tenga destino en el centro solicitado y cumpla el resto de los requisitos exigidos en cada caso.

Las candidaturas presentadas por el personal laboral docente únicamente se tendrán en cuenta cuando no se presente o no sea seleccionada ninguna otra candidatura.

4.– Todos los requisitos que, en cada caso, deba cumplir la persona aspirante deberán poseerse en la fecha de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

#### **Artículo 5.**– Comisiones de Selección.

1.– Se constituirá una Comisión de Selección en cada uno de los centros docentes públicos no universitarios en los que deba realizarse el proceso de selección, y en los que se haya presentado al menos una candidatura.

2.– La Comisión de Selección de cada centro estará integrada por los siguientes miembros:

– Un Inspector o Inspectora de Educación propuesto por el Inspector Jefe o Inspectora Jefa Territorial correspondiente al centro, que actuará como Presidente o Presidenta de la Comisión.

– Dos representantes del profesorado del centro elegidos por y entre las y los miembros del Claustro del mismo. El profesor o profesora de mayor edad actuará como Secretario o Secretaria de la Comisión, con voz y voto.

– Ikastetxeko irakasle ez diren ikastetxe bertako ordezkari-organismo goreneko kideek euren artean aukeratuak bi lagunek. Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan, gutxienez horietako batek ikasleen gurasoen sektoreko ordezkaria izan behar du. Ordezkari-organismo gorenean ikasleen ordezkari-organismo goreneko kideek euren artean aukeratuak bi lagunek. Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren kurtsoetik gorako ikasleek baino ez dute izango aukeratzeko eta aukeratuak izateko posibilitatea.

3.– Hautagaien hizkuntza eskubideak eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea errespetatze aldera, aukeraketa-batzordeko kideen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa duten kideak egotea bermatuko da.

4.– Aukeraketa-batzordeetako kideak dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatuko ditu.

5.– Ikastetxeko zuzendaritzara aurkeztu diren irakasleek ezingo dute aukeraketa-batzordeko kide izan.

6.– Gaixotasunagatik edo beste edozein arrazoi justifikatuagatik batzordeko lehendakariak bilera batera joan ezin badu, ikastetxeari dagokion Ikuskaritzako lurraldeburuak proposatutako beste hezkuntza-ikuskaritzaile batek ordezkatuko du.

7.– Gaixotasunagatik edo beste edozein arrazoi justifikatuagatik ordezkari-organismo goreneko edo klaustroko ordezkariaren batek bileretara joan ezin badu, Dekretu honetako 10. artikuluan aipatutako ordezkari zerrendan agertzen den pertsona batek ordezkatuko du. Zerrenda horretako ordena errespetatuko da. Batzordeko idazkariaren ordezkari ezinezkoa bada, berari dagokion funtzioak klaustroaren beste ordezkari batek beteiko ditu. Bilera batean klaustroko ordezkari ez badago, idazkari-funtzioak ordezkari-organismo goren ordezkariaren dutenen artean pertsona helduenak beteiko ditu.

8.– Aukeraketa-batzordearen bilera batek balioa izateko, bertan egon behar dute lehendakariak eta batzordeko beste bi lagunek edo horiek ordezkariak dituztenek.

9.– Aukeraketa-batzordeko kideek ez dute prozedura esku hartuko eta indarreko araudian aurreikusitako baldintzak bertan adierazitako moduan ematen diren ezetsiak izan daitezke.

– Dos personas elegidas por y entre las y los miembros del Órgano Máximo de Representación del centro que no pertenezcan al profesorado del mismo. En los centros que imparten Educación Especial, Educación Infantil, Educación Primaria o Educación Secundaria, al menos una de estas personas deberá ser un o una representante del sector de madres y padres de los alumnos y alumnas. En los centros en los que en el Órgano Máximo de Representación exista representación del alumnado solo serán electores o electoras y elegibles los alumnos y alumnas a partir del tercer curso de la Educación Secundaria Obligatoria.

3.– Para respetar los derechos lingüísticos de las personas candidatas y cumplir lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, se garantizará que entre las y los miembros de la Comisión de Selección existan personas con conocimiento suficiente de los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– Las personas miembros de las Comisiones de Selección serán nombradas por el Delegado o Delegada Territorial de Educación correspondiente.

5.– En ningún caso podrán formar parte de la Comisión de Selección los profesores o profesoras que hayan presentado su candidatura a la Dirección del centro.

6.– En caso de que, por enfermedad o por otra causa justificada, el Presidente o Presidenta de la Comisión no pudiera asistir a alguna de sus reuniones, será sustituido o sustituida por otro Inspector o Inspectora de Educación propuesto por el Inspector Jefe o Inspectora Jefa Territorial correspondiente al centro.

7.– En caso de que alguna de las personas representantes del Claustro o del Órgano Máximo de Representación, por enfermedad o por otra causa justificada, no pudieran asistir a alguna de sus reuniones, serán sustituidos o sustituidas por las personas que figuren en la correspondiente lista de personas suplentes a que se refiere el artículo 10 del presente Decreto, en el orden establecido en dicha lista. Si no hubiera sido posible la sustitución del Secretario o Secretaria de la Comisión, sus funciones serán ejercidas por la otra persona representante del Claustro. Si en alguna reunión no hubiera ninguna persona representante del Claustro, las funciones del Secretario o Secretaria serán ejercidas por la persona representante del Órgano Máximo de Representación que tenga mayor edad.

8.– Para que una reunión de la Comisión de Selección sea válida será necesaria la presencia en la misma del Presidente o Presidenta y de al menos otras dos personas miembros de la misma o de sus correspondientes suplentes.

9.– Las personas miembros de la Comisión de Selección se abstendrán de intervenir en el procedimiento y podrán ser recusadas cuando se den las circunstancias previstas en la normativa vigente y en los términos establecidos en la misma.

**6. artikulua.**– Funtzio jakinak betetzeko bateraezintasunak.

1.– Euren ikastetxeko zuzendaritzarako merezimendu-lehiaketara aurkezten diren eta funtzio hori betetzen ari diren zuzendariak ezingo dute aukeraketa-batzordeko kide izan, eta ezingo dituzte aukeraketa-prozesuan ikastetxeko zuzendariari esleitutako funtzioak bete. Funtzio horiek ikastetxeko zuzendariordeak beteko ditu, edo, ondorioz, zuzendariondokoak, ikasketaburuak, ordezko ikasketaburuak edo ikastetxeko idazkariordeak; baldin eta aipatutako pertsona horiek euren hautagaitza aurkeztu ez badute.

2.– Goian aipatutako karguak dituzten pertsona guztiak ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu badute, aukeraketa-prozesuan ikastetxeko zuzendariari esleitutako funtzioak bete behar dituen ikastetxeko irakaslea izendatuko du Hezkuntzako lurralde-ordezkariek.

3.– Ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkezten duten irakasleek eskubidea izaten jarraituko dute klaustroaren bileretan egoteko, parte hartzeko eta botoa emateko, eta hala badagokio, aukeraketa-batzordean organo horietako ordezkariek aukeratu behar diren ordezkaritza-organoren bileretan ere eskubide horiek izango dituzte.

**7. artikulua.**– Deialdia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak ikasturte guztietan agindua emango du meritu-lehiaketarako dei egiteko, ikasturte horretan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko, postu hori hutsik geratu den ikastetxeetan.

**8. artikulua.**– Eskaerak aurkeztea.

1.– Merezimendu-lehiaketarako deia egiteko Aginduan ezartzen den epean, Agindu horretan zehaztutako ikastetxeetako zuzendarigaiak eskaera idatziz aurkeztu ahal izango diote dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-buruari. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru ikastetxetako zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu ahal izango du, gehienez ere, pertsona bakoitzak.

2.– Eskaerarekin batera, argudiatutako merezimenduak frogatzeko dokumentazioa erantsi beharko dute, Dekretu honen eranskinean adierazitako baremoarekin lotuta. Halaber, Dekretu honen 4.1. artikuluan zehaztutako d) baldintzari dagokion zuzendaritza-proiektua ere erantsi beharko dute.

3.– Zuzendaritza-proiektua lantzeko, zuzendari izan nahi duten pertsonen dagokion lurralde-ordezkaritzan

**Artículo 6.**– Incompatibilidades para ejercer ciertas funciones.

1.– Los Directores o Directoras en activo que se presenten al concurso de méritos para optar a la Dirección de su propio centro no podrán formar parte de la Comisión de Selección ni llevar a cabo las funciones que en el proceso de selección están asignadas al Director o Directora del centro. Estas funciones serán realizadas por la persona que ejerza la Vicedirección del centro, o, consecutivamente, por la que ejerza la Dirección Adjunta, la Jefatura de Estudios, la Jefatura de Estudios Adjunta, la Secretaría o la Secretaría Adjunta del centro, siempre y cuando la persona correspondiente no haya presentado también su candidatura.

2.– Si todas las personas que ejercen los cargos anteriormente mencionados hubieran presentado también su candidatura a la Dirección del centro, el Delegado o Delegada Territorial de Educación correspondiente designará al profesor o profesora del centro que tiene que ejercer las funciones asignadas al Director o Directora del centro en el desarrollo del proceso de selección.

3.– Los profesores y profesoras que presenten su candidatura a la Dirección del centro mantendrán su derecho a la presencia, participación y voto en las reuniones del Claustro y, en su caso, del Órgano Máximo de Representación donde se tienen que escoger a los y las representantes de esos órganos en la Comisión de Selección.

**Artículo 7.**– Convocatoria.

Por Orden del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación se convocará en cada curso escolar el correspondiente concurso de méritos para la selección de los Directores o Directoras de los centros docentes no universitarios dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en los que el cargo vaya a quedar vacante al finalizar dicho curso.

**Artículo 8.**– Presentación de solicitudes.

1.– Durante el plazo que se establezca en la Orden por la que se convoque el Concurso de méritos, las personas aspirantes al cargo de Director o Directora de los centros especificados en la citada Orden podrán presentar su solicitud por escrito, dirigida al Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente. Cada persona podrá presentar su candidatura a la Dirección de un máximo de tres centros de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Junto con la solicitud deberán adjuntar la documentación acreditativa de los méritos alegados, con relación al baremo que se establece en el anexo del presente Decreto, así como el Proyecto de Dirección al que se refiere el requisito d) especificado en el artículo 4.1 del presente Decreto.

3.– A efectos de la elaboración del Proyecto de Dirección, las personas aspirantes a Director o Directora



kontsultatu ahal izango dute zuzendari izateko aurkeztu diren ikastetxeetako dokumentazioa.

4.– Hautagaiak eskaera, honekin aurkeztu beharreko agiriak eta Zuzendaritza Proiektua, beren aukerako hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, hautaketa prozesuaren ondoriozko harremanetan eta prozedura guztian ere hautagaiaren aukerako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legeko 5.2.a) eta 6.1. artikuluei jarraiki.

### **9. artikulua.**– Eskaerak onartzea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea amaitu bezain laster, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek dagokien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-zerbitzuei eskatuko die egiaztatzeko kasu bakoitzari dagokion gaiaren arabera, kasu horietan exijitutako baldintzak hautagai bakoitzak betetzen ote dituen eta aurkeztutako merezimenduak benetakoak diren ala ez, datu horiek dagokion aukeraketa-batzordeari eskaini ahal izateko.

Prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztutako epean eskaini beharko dituzte datuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-zerbitzuek.

2.– Prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztutako den epean, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek erabakiko du aurkeztutako eskaerak onartu edo atzera botatzea, eta horretarako kontuan izango ditu eman dizkieten datuak. Exijitutako baldintzetakoren bat betetzen ez badute eskaera ez da onartuko. Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariekin ebazpenak zehaztuko zein arrazoi dagoen onartu ez dituzten pertsonak kanporatzeko. Onartutako pertsonen kasuan, dagokion ikasturtean ikastetxe horretan lekua ote duen ere zehaztuko du zuzendarigaiak.

3.– Ebazpen horiek Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzaren egoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Argitaratze horren bitartez pertsona interesatuei jakinarazpena egin zaiela ulertuko da.

4.– Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ikuskaritzako buruak ebazpenaren berri emango dio eragiten dion ikastetxeko zuzendariari, bertako iragarki-taulan ere argitaratu emateko.

podrán consultar la documentación relativa a los centros a cuya Dirección optan, en la correspondiente Delegación Territorial de Educación.

4.– Las personas candidatas podrán presentar la solicitud, los documentos que deben presentar con la misma y el Proyecto de Dirección en el idioma oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco que ellas elijan. Asimismo, en las relaciones que se deriven del proceso de selección y en todo el procedimiento se utilizará el idioma elegido por la persona candidata, en cumplimiento de lo establecido en los artículos 5.2.a) y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normatización del Uso del Euskera.

### **Artículo 9.**– Admisión de solicitudes.

1.– Inmediatamente después de finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente solicitará a los Servicios Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que corresponda, en función de la materia de que se trate en cada caso, la comprobación del cumplimiento por parte de cada candidato y candidata de los requisitos exigidos en cada caso y de los méritos alegados por los mismos para la primera fase del concurso, con el fin de poder facilitar posteriormente estos datos a la correspondiente Comisión de Selección.

Los Servicios Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación deberán facilitar los datos solicitados en el plazo que se determine en la Orden de convocatoria del proceso.

2.– En el plazo que se determine en la Orden de convocatoria del proceso, el Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente, teniendo en cuenta los datos que le han sido facilitados, resolverá sobre la admisión o desestimación de las solicitudes presentadas. La falta de cumplimiento de alguno de los requisitos exigidos comportará la desestimación de la solicitud. La Resolución del Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente especificará el motivo de exclusión de las personas no admitidas. En el caso de las personas admitidas especificará también si la persona candidata a Director o Directora tiene o no destino en el centro en el curso académico correspondiente.

3.– Las Resoluciones a que se refiere el apartado anterior se publicarán en el tablón de anuncios de la sede de la Delegación Territorial de Educación correspondiente. Con esta publicación se considerará efectuada la correspondiente notificación a las personas interesadas.

4.– El Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente notificará al Director o Directora del centro afectado la correspondiente Resolución, para que también se haga pública en el tablón de anuncios del centro.

5.– Ebazpen horien aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote dagokien lurralde historikoko hezkuntza-ordezkaritari.

**10. artikulua.**– Aukeraketa-batzordea eratzea.

1.– Ikastetxe horretako zuzendaritzarako hautagai bat edo gehiago onartuta daudela adierazten dietenean eratu beharko da ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordea.

2.– Batzordea eratu behar den ikastetxeetan, Ikuskaritzako lurraldeburuak dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari jakinaraziko dio zein den aukeraketa-batzorde bakoitzeko buru izango den ikuskatzailearen izena. Hori egiteko epea prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztuko da.

3.– Halaber, prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztuko den epean, ikastetxeko zuzendariak klaustroa eta ordezkaritza-organo gorena deituko ditu, onartutako eskaerak jakinarazteko eta aukeraketa-batzordean erakunde bakoitzeko ordezkaririk aukeratzeko. Zuzendaria bera ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaietako bat bada, abstenitu egin beharko da eta funtzio horiek dagokion pertsonaren esku utziko ditu, Dekretu honetako 6. artikuluan zehaztutakoa jarraituta.

4.– Klaustroko eta ordezkaritza-organo goreneko bi ordezkaririk organo horietan aukeratuko dituzte bozketak sekretu bidez. Bertan, botoa emateko eskubidea duen pertsona bakoitzak pertsona bakar bati eman ahal izango dio botoa. Boto gehien lortzen duten bi pertsonak aukeratuko dituzte, salbu Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan. Ikastetxe horietan Ordezkaritza Organo Goreneko kideetako bat nahitaez izango da boto gehien lortzen duen gurasoen sektoreko ordezkaririk.

Berdinketarik badago, bigarren bozketak bat egingo da berdinketa desegiteko, eta, behar izanez gero, hirugarren bat. Bozketak horietan berdindutako pertsonak baino ezingo dira bozkatu. Hirugarren bozketak egin ostean, berdinketarik badago, bozketak publikoak egingo da.

5.– Klaustroko eta ordezkaritza-organo goreneko bi ordezkaririk aukeratuta, organo bakoitzean ordezkoen zerrenda osatuko da. Botoren bat jaso duten pertsonen osatuko dute zerrenda bakoitza. Boto gehien lortu dituen pertsona egongo da lehenengoa, eta azkena, berriaz, boto gutxien jaso dituenak. Ordezkoen zerrendetan berdinketarik badago, bozketak publiko bidez erabakiko dira.

6.– Organo bakoitzaren bilera-aktaren kopia igorriko dio ikastetxeko zuzendariak edo horren ordezkoak

5.– Contra las Resoluciones anteriores las personas interesadas podrán presentar recurso de alzada ante el Viceconsejero o Viceconsejera de Educación.

**Artículo 10.**– Constitución de las Comisiones de Selección.

1.– La Comisión de Selección de cada centro deberá constituirse cuando se declaren admitidas una o más candidaturas a la Dirección de dicho centro.

2.– En el plazo que se determine en la Orden de convocatoria del proceso, el Inspector Jefe o Inspectora Jefa Territorial comunicará al Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente los nombres de los Inspectores o Inspectoras que presidirán cada una de las Comisiones de Selección de los centros en los que ésta deba constituirse.

3.– Asimismo, en el plazo que se determine en la Orden anteriormente citada, el Director o Directora del centro convocará al Claustro y al Órgano Máximo de Representación para notificarles las solicitudes admitidas y proceder a la elección de sus representantes en la Comisión de Selección. En el caso de que el propio Director o Directora fuera una de las personas aspirantes a la Dirección del centro, deberá abstenerse y será sustituido o sustituida en esas funciones por la persona que corresponda, de acuerdo con lo que se determina en el artículo 6 del presente Decreto.

4.– Las dos personas representantes del Claustro y del Órgano Máximo de Representación se elegirán en cada uno de estos Órganos en votación secreta, en la que cada persona con derecho a voto podrá votar a una sola persona, resultando elegidas las dos que obtengan más votos, salvo en los casos de elección de las personas representantes del Órgano Máximo de Representación de los centros que imparten Educación Especial, Educación Infantil, Educación Primaria o Educación Secundaria, en los que una de las dos personas elegidas será necesariamente la persona representante del sector de padres y madres que obtenga más votos.

Para deshacer los empates que se pudieran haber producido se procederá a realizar una segunda y, si fuera necesario, una tercera votación, en las que se podrá votar únicamente a las personas que hubieran quedado empatadas. Si persisten los empates tras la tercera votación, se procederá a realizar un sorteo público.

5.– Una vez elegidas las dos personas representantes del Claustro y del Órgano Máximo de Representación se formará una lista de personas suplentes en cada uno de los dos estamentos. En cada lista figurarán todas las personas que hubieran obtenido algún voto, ordenadas por el número de votos recibidos de mayor a menor. Los posibles empates que pudieran producirse en las listas de suplentes se dirimirán por sorteo público.

6.– El Director o Directora del centro, o persona que lo sustituya, enviará al Delegado o Delegada Territorial

dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari.

7.– Hauteskundeak egingo diren ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordeetako kideak izendatuko ditu dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek. Kideak izendatu ondoren, aukeraketa-prozesuaren deialdiko Aginduan finkatutako epearen barne eratu beharko dira aukeraketa-batzordeak.

8.– Ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordearen osaketa jendaurrean jarriko da dagokion ikastetxeko iragarki-taulan.

**11. artikulua.**– Lehen faseko merezimenduen balorazioa.

1.– Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek batzorde bakoitzeko lehendakariari emango dizkio Dekretu honetako 9. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako datuak. Onartutako hautagai bakoitzaren lehiaketaren lehen faseko merezimenduen egiaztapenei buruzkoak dira datu horiek. Halaber, onartutako hautagai bakoitzak aurkeztutako zuzendaritza-proiektuari buruzko dokumentazioa emango dio.

2.– Prozesuaren deialdiko Aginduan finkatutako epean, eta aurreko datuak kontuan izanda, aukeraketa-batzordeak prozesuaren lehen faseko hautagai guztien merezimenduak aztertuko ditu, Dekretu honen eranskinen ezarritako baremoa kontuan hartuta.

3.– Aukeraketa-batzordeak lehiaketaren lehen faseko merezimenduak balioetsi eta gero, dagokion ikastetxean argitaratuko du Batzorde horrek hautagai guztiek lortutako puntuaketa. Ebazpen horren aurka, interesatuek erreklamazioa jarri ahal izango diote batzordeari prozesuaren deialdi-aginduan zehaztuko den epean.

**12. artikulua.**– Zuzendaritza-proiektua baloratzea.

1.– Fase honen helburu da zuzendaritza-proiektua balioztatzea, bai eta proiektu hori ikastetxerako egokia den aztertzea ere. Horretarako kontuan hartuko dira Dekretu honetako eranskinen ezarritako bigarren faseko baremoan zehaztutako edukiak eta balorazio-irizpideak.

2.– Bigarren fase honetan, hautagaiek 35 puntu lortu behar dituzte, gutxienez. Gutxienezko puntuaketa hori lortzen ez duten izangaiak aukeraketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

3.– Merezimenduen lehiaketaren bigarren fasean, aukeraketa-batzordeak honako hau baloratuko du lehen-dabizi: dagokion ikasturtean ikastetxe horretan behin betiko edo behin-behineko postua duten hautagaien

de Educación del Territorio Histórico correspondiente copia del acta de la sesión de cada uno de los órganos de participación mencionados.

7.– El Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente nombrará a las y los miembros de las Comisiones de Selección de cada uno de los centros afectados. Una vez nombradas y nombrados sus miembros las Comisiones de Selección deberán constituirse dentro del plazo fijado en la Orden de convocatoria del proceso de selección.

8.– La composición de la Comisión de Selección de cada centro se publicará en el tablón de anuncios del mismo.

**Artículo 11.**– Valoración de los méritos correspondientes a la primera fase.

1.– El Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente hará entrega a la Presidencia de cada Comisión de los datos a los que se refiere el apartado 1 del artículo 9 del presente Decreto, relativos a la comprobación de los méritos correspondientes a la primera fase del concurso de cada una de las personas cuya candidatura haya sido admitida, así como la documentación relativa al Proyecto de Dirección presentado por cada una de dichas personas.

2.– En el plazo fijado en la Orden de convocatoria del proceso y teniendo en cuenta los datos anteriores, la Comisión de Selección procederá a valorar los méritos de cada uno de los candidatos y candidatas correspondientes a la primera fase del proceso, de acuerdo con el Baremo establecido en el anexo del presente Decreto.

3.– Una vez efectuada por la Comisión de Selección la valoración de los méritos correspondientes a la primera fase de concurso, dicha Comisión publicará en el centro correspondiente la puntuación obtenida por cada una de las personas candidatas. Contra esta Resolución, las personas interesadas podrán presentar la correspondiente reclamación ante la propia Comisión, en el plazo que se determine en la Orden de convocatoria del proceso.

**Artículo 12.**– Valoración del Proyecto de Dirección.

1.– La finalidad de esta fase es valorar el Proyecto de Dirección y su adecuación al centro, de acuerdo con los contenidos y criterios de valoración especificados en el baremo de la segunda fase, establecido en el anexo del presente Decreto.

2.– La puntuación mínima que deben obtener los candidatos y candidatas en esta segunda fase es de 35 puntos. Las personas aspirantes que no alcancen dicha puntuación mínima quedarán excluidas del proceso de selección.

3.– La Comisión de Selección, en la segunda fase del concurso de méritos, valorará, en primer lugar, el Proyecto de Dirección de las personas aspirantes que tienen destino definitivo o provisional en el centro en el curso



zuzendaritza-proiektua, Dekretu honetako eranskinean jasotako baremoko bigarren fasean aurreikusitako irizpideak kontuan hartuta.

Horrelako hautagairik ez badago edo ikastetxeko hautagairik aukeratzen ez badute, aukeraketa-batzordeak kanpoko ikastetxetan postua duten hautagaien proiektuak aztertuko ditu.

Azkenik, horrelako hautagairik ez badago edo hautagai horietakoren bat aukeratzen ez badute, Dekretu honetako 4. artikuluko 3. idatz-zatian zehaztutako ikastetxetako aukeraketa-batzordeak ikastetxe horretako lan-kontratudun irakasle hautagaien proiektuak aztertuko ditu.

4.– Aukeraketa-batzordeak hautagaiak elkarrizketatu ahal izango ditu -urretik hitzordua adostuta- zuzendaritza-proiektuan jasotako informazioa osatzeko, eta proiektua ikastetxerako eta eskatutako posturako egokia ote den aztertuko.

5.– Aukeraketa-batzordeko kide guztiek zuzendaritza-proiektua balioztatuko dute, eta 0 eta 70 arteko puntuazioa emango. Pertsona bakoitzak emandako puntuazioak zenbaki osoa izan beharko du. Kalifikazioa emateko bilduko den aukeraketa-batzordearen bileran bildutako kideek emandako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da zuzendaritza-proiektuagatik lehiakide bakoitzak lortutako puntuaketa, eta bi zenbaki hamartarrekin kalkulatu da. Emandako kalifikazioetan 20 puntu edo gehiagoko aldea dagoenean, automatikoki kenduko dira kalifikazio maximoa eta minimoa, eta gainerako kalifikazioen artean kalkulatu da batez besteko puntuaketa.

### **13. artikulua.**– Zuzendaria aukeratzea.

1.– Ikastetxean postua duten irakasle hautagaien artean -halakorik badaude- bi faseetako puntuak batuta puntu gehien lortu duen hautagaia aukeratu du aukeraketa-batzordeak. Bigarren fasean ezarritako gutxieneko puntuak lortu dituzten hautagaien artean aukeratu du.

2.– Modu horretan pertsonarik aukeratu ezin bada, irizpide bera jarraituko zaie ikastetxean postua ez duten hautagaiei. Dekretu honen 4. artikuluko 3. idatz-zatian zehaztutako ikastetxeen kasuan, berriz, irizpide hori hautagaitza aurkeztu duten ikastetxe horretako lan-kontratudun irakasleei aplikatuko zaie.

3.– Hautagaien guztizko puntuaketa batuta berdinetarik izanez gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ebazteko:

- Zuzendaritza-proiektuaren puntuaketa altuena.
- Dekretu honen eranskinean agertzen diren ordena jarraituta, lehen faseko merezimenduen baremoaren ataletan puntuaketa altuena.

académico correspondiente, de acuerdo con los criterios previstos en la segunda fase del baremo que consta en el anexo de este Decreto.

En ausencia de estos candidatos o candidatas o en el supuesto de no elección de ningún candidato o candidata del centro, la Comisión de Selección valorará los Proyectos de las candidaturas de personas con destino en otros centros.

Finalmente, en ausencia de estos candidatos o candidatas o en el supuesto de no elección de ninguna de estas personas, la Comisión de Selección de los centros especificados en el apartado 3 del artículo 4 del presente Decreto, valorará los Proyectos de las candidaturas del personal laboral docente con destino en el centro.

4.– La Comisión de Selección podrá entrevistar a las personas candidatas, previa citación al efecto, con la finalidad de completar la información contenida en el Proyecto de Dirección y la adecuación del mismo al contexto del centro y al puesto solicitado.

5.– Cada persona miembro de la Comisión de Selección valorará el Proyecto de Dirección otorgándole una puntuación entre 0 y 70 puntos. La puntuación otorgada por cada persona deberá ser un número entero. La puntuación que cada concursante obtenga por el Proyecto de Dirección será la media aritmética, calculada con dos cifras decimales, de las calificaciones concedidas por las personas miembros presentes en la reunión de la Comisión de Selección en la que se proceda a otorgar la calificación. Cuando en las calificaciones otorgadas exista una diferencia igual o superior a 20 puntos serán automáticamente excluidas las calificaciones máxima y mínima, hallándose la puntuación media entre las calificaciones restantes.

### **Artículo 13.**– Selección del Director o Directora.

1.– La Comisión de Selección, de entre las candidaturas de profesores y profesoras con destino en el centro, si los hay, seleccionará a la persona aspirante que haya obtenido el resultado más alto en la suma de los puntos de las dos fases, de entre aquellas que hayan superado la puntuación mínima establecida para la segunda fase.

2.– Si de esta forma no se pudiera seleccionar a ninguna persona, se aplicará el mismo criterio sucesivamente a los candidatos y candidatas sin destino en el centro, y en el caso de los centros especificados en el apartado 3 del artículo 4 del presente Decreto, al personal laboral docente con destino en el centro que hubiera presentado su candidatura.

3.– En caso de producirse empates en la puntuación total de las personas aspirantes, se resolverán atendiendo sucesivamente a los siguientes criterios:

- Mayor puntuación del Proyecto de Dirección.
- Mayor puntuación en los apartados del baremo de méritos de la primera fase, por el orden en que aparecen en el anexo del presente Decreto.

– Dekretu honen eranskinean agertzen diren ordena jarraituta, lehen faseko merezimenduen baremoaren azpiataletan puntuaketa altuena.

– Aurreko irizpideak aplikatu ondoren oraindik berdinduta daudenen artean pertsona bat aukeratzeko, Batzordeko kideen arteko bozketa egingo da. Bozketan berdinketa gertatzen bada, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

4.– Batzordeko idazkariak akta idatziko du hautagai guztiek fase bakoitzean lortutako puntuaketak egiaztatzeko, eta norbait aukeratzeko badute, pertsona horren izena jasoko du, aurreko ataletan ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Akta batzordeko kide guztiek sinatuko dute.

5.– Batzordeko lehendakariak jendaurrean jarriko du akta hori ikastetxeko iragarki-taulan, eta dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari igorriko dio.

6.– Lortutako puntuaketak biltzen dituen aktan jasotako erabakien aurka, interesdun guztiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari prozesuaren deialdi-aginduan zehaztuko den epean. Era berean, ordezkaritari horrek aurreko aginduan zehaztutako epean ebatzi beharko ditu.

7.– Aurreko erreklamazioak ebatzi ondoren, aukeraturako hautagaien zerrenda onartutzat aitortzen duen ebazpena egin eta jakitera emango du lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari.

8.– Ebazpen horiek Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzaren egoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Argitaratze horren bitartez pertsona interesatuak jakinarazpena egin zaiela ulertuko da.

9.– Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ikuskaritzako buruak ebazpenaren berri emango dio eragiten dion ikastetxeko zuzendaritari, bertako iragarki-taulan ere argitara emateko.

10.– Ebazpen horien aurka, interesdunek gora jotzeko errekursoa jarri ahal izango diote dagokien lurralde historikoko hezkuntza-ordezkaritari.

#### **14. artikulua.**– Hasierako Prestakuntza Programa.

1.– Aukeraturako pertsonak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako Hasierako Prestakuntza Programa bat gainditu beharko dute. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean irakasleak prestatzeko eskumena duen zuzendaritza ebazpena emango du programa honen deialdia, antolakuntza, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko. Ahal dela, programa hori ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egingo da, hau da, aurreko zuzendaritzaren agintaldia amaitu baino lehen.

– Mayor puntuación en los subapartados del baremo de méritos de la primera fase, en el orden en que aparecen en el anexo del presente Decreto.

– Votación de las personas miembros de la Comisión para seleccionar a una persona de entre las que, una vez aplicados los criterios anteriores, todavía permanecieran empatadas. En caso de empate en la votación decidirá el voto de calidad del Presidente o Presidenta.

4.– El Secretario o Secretaria de la Comisión extenderá el acta acreditativa de las puntuaciones obtenidas en cada fase para cada aspirante y, si la hubiera, hará constar en el Acta el nombre de la persona seleccionada, de acuerdo con los criterios establecidos en los apartados anteriores. El acta será firmada por todas las personas miembros de la Comisión.

5.– El Presidente o Presidenta de la Comisión hará pública el acta anterior en el tablón de anuncios del centro y la remitirá al Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente.

6.– Contra las decisiones contenidas en el acta acreditativa de las puntuaciones obtenidas, las personas interesadas podrán presentar, en el plazo que se determine en la Orden de convocatoria del proceso, la correspondiente reclamación ante el Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente, que deberá resolverlos asimismo en el plazo que se determine en la Orden anterior.

7.– Una vez resueltas las reclamaciones anteriores, el Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente dictará y hará pública la Resolución que declare aprobada la lista de aspirantes seleccionados o seleccionadas.

8.– Las Resoluciones a que se refiere el apartado anterior se publicarán en el tablón de anuncios de la sede de la Delegación Territorial de Educación correspondiente. Con esta publicación se considerará efectuada la correspondiente notificación a las personas interesadas.

9.– El Delegado o Delegada Territorial de Educación del Territorio Histórico correspondiente notificará al Director o Directora del centro afectado la correspondiente Resolución, para que también se haga pública en el tablón de anuncios del centro.

10.– Contra las Resoluciones anteriores las personas interesadas podrán presentar recurso de alzada ante el Viceconsejero o Viceconsejera de Educación.

#### **Artículo 14.**– Programa de Formación Inicial.

